3.2.2.

Kreditua atxikitzeko erabakia Kontu-hartzailatzaren txostenaren bidez hartuko da, eta, bertan, kasuan kasuko kontu-sailean edo baimendutako lotura juridikoaren mailan behar besteko krediturik dagoen azaldu beharko da.

3.2.3.

Gastua baimendutakoan, kreditu-atxikipenari dagozkion kontabilitate-eragiketak egingo dira.

3.3. Euskarri-agiriak.

Gastua betearazteko ezarritako fase guztiak idatziz dokumentatu beharko dira, honako prozedura hauen bitartez:

1. Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen eskumenpeko gastuak baimendu eta zehazteko orduan, hartutako erabakiak dokumentatzen dituen hitzarmen idatzia egin beharko da.



2. Presidentetzaren, Gerentziaren eta Zuzendarien eskumenpeko gastuak baimendu eta zehazteko faseak gastuaren betearazpen-proposamenen bidez laburtu ahal izango dira.
3. Betebeharra aitortu eta likidatzeko, gastuaren betearazpenaren fakturak edo egiaztagiriak jaso beharko dira.
4. Gastu-espedienteak ordaintzeko agindua dokumentatzeko, kasuan kasuko ordainketa-aginduak bete beharko dira.

Aurrekontuaren kontura egindako ordainketa-aginduekin batera, hartzekodunak prestazioa egin duela edo baieztatutako zenbatekoa jasotzeko eskubidea duela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira. Prozesu guztian zehar, gastua baimentzeko eta konprometitzeko erabilitako kontratuak, erabakiak eta xedapenak hartu beharko dira kontuan.

5. Gastuaren betearazpena zenbait fase laburtzen dituzten agirietan metatu ahal izango da, ekonomia, eraginkortasun eta egokitasun arloko irizpideak kontuan hartuta.
6. Era berean, gastuaren betearazpenarekin zerikusia duten zenbait fase oso-osorik edo zatika ezeztatzen badira, idatziz dokumentatu beharko da, hasiera batean konprometitutako kredituak eta betebeharrak liberatzeko.

3.4. Justifikatu beharreko ordain-aginduak.

3.4.1.

Ordainketa-aginduak egiten direnean, kasuan kasuko agiriak aurkezterik ez badago, “justifikatu” egin beharko dira eta dagozkien aurrekontu-kredituetan ezarri beharko dira.

3.4.2.

Berehala ordaindu beharreko eskurapenetan edo zerbitzuetan baino ez dira “justifikatu beharreko” ordainketa-aginduak egingo, betiere, gastuaren egiaztagiriak gastua egin aurretik aurkeztu ezin badira.



3.4.3.

Ordainketa-aginduon hartzaileek jasotako zenbatekoen ezarpena justifikatu beharko dute, hiru hilabeteko gehienezko epean edo ekitaldia itxi baino lehen. Gainera, indarreko arategiko erantzukizun-araubidea bete beharko dute.

3.4.4.

Horretarako, aurreko paragrafoan adierazitako epeetan, hartzaileek Kontu-hartzailetzari aurkeztu beharko dizkiote ordainketaren egiaztagiriak, eta, egon baleude, inbertitu ez diren zenbatekoak itzuli beharko lituzkete.

3.4.5.

Oraindik justifikatu gabeko fondoak dituzten hartzaileei ezin zaizkie “justifikatu beharreko” ordainketa-agindu berriak inondik inora egin aurrekontu-azalpen berberengatik.

3.4.6.

Artikulu honetan aipatutako aginduak honako arau hauen arabera justifikatuko dira:

1. Fondoak zehaztutako helbururako baino ez dira erabiliko.
2. Egiaztagiriak agiri originalak izan beharko dira, eta behar bezala eginda egon beharko dira.

3.4.7.

Hartzaileak berak fondoak zaindu beharko ditu.

3.4.8.

Fondo hauen kontura ordaindutako gastu bakoitzaren zenbatekoa ez da 600 eurotik gorakoa izango.



3.5. Kutxa finkoko aurrerakinak.

3.5.1.

Aldian-aldian edo behin eta berriro gertatzen diren atentzioetarako, justifikatu beharreko fondo igorriak kutxa finkoko aurrerakinak izan ahalko dira.

3.5.2.

Fondo hauen hartzaileek aurrerakinari dagokion aurrekontu-ekitaldian zehar jasotako zenbatekoen ezarpena justifikatu beharko dute.

3.5.3.

Fondo hauen kontura ordaindutako gastu bakoitzaren zenbatekoa ez da 1.000 eurotik gorakoa izango.

3.6. Batera finantzatutako proiektuak.

3.6.1.

Urtero, gastuak beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin batera finantzatzen direnean, likidazioa egingo da, eta gastua betearazten duen Zerbitzuak kudeatuko du. Horrez gain, memoria argigarria ere aurkeztu beharko da.

3.6.2.

Batera finantzatutako proiektuen likidazioa Batzar Nagusiari bidali beharreko informazioan erantsiko da.

3.7. Txosten ekonomiko-finantzarioa.

Hilero, epealdi horretan zehar egindako eragiketei buruzko Txosten Ekonomiko eta Finantzarioa bidaliko zaio Zuzendaritza Batzordeari, eta honako agiri hauek erantsi beharko dira bertan: Aurrekontuko Betearazpen Egoera.



4. DIRU-SARREREN KUDEAKETA

4.1. Diru-sarreraren bilketa.

4.1.1.

Diru-sarrera zuzenak Partzuergoko Gordailuzaintzan edo bankuetan edo aurrezki-kutxetan Partzuergoaren alde irekitako kontu batean edo batzuetan bildu ahal izango dira.

Halakoetan, diru-sarrera ez da formalizatuta geratuko, harik eta diru-sarreraren agiria egin arte.

4.1.2.

- 1.- Udalerrietako abonatuak kudeatzean, bigarren mailako sareko ur-hornikuntzagatik eta udal-tasengatik lortutako diru-bilketa aurrekontuz kanpoko kontuetan kontabilizatuko da oso-osorik. Epealdi bakoitzaren amaieran, kasuan kasuko likidazioa egingo da.

Partzuergoak udaleko toki-sarea ustiatu eta artatzen ez badu, udalari berari ordainduko zaio bigarren mailako sareko uraren fakturazioaren eta Partzuergoko lehen mailako sareko hornikuntzaren zenbatekoaren artean dagoen aldea, diru-bilketari buruzko indarreko arauen babespean zordunketak oso-osorik edo zatika konpentsatu behar ez direnean.

Hiru hilean behin, kasuan kasuko azalpen gaineko diru-bilketaren sariak atxikiko zaizkie udalei.

- 2.- Udal Sareak, S.A. enpresak bigarren mailako sareko hornikuntza eta zerbitzuengatik egindako kobrantzak Partzuergoak horretarako irekitako kontuan sartuko dira zuzenean.

Kontu horretako fondoan bitartez, aurrekontuz kanpoko kontuetan kontabilizatutako udalekiko likidazioei aurre egingo die Partzuergoak, eta, gainera, Diru-sarreraren Egoeran zehaztutako azalpenak sartu beharko ditu bere aurrekontuan.

- 3.- Udal Sareak, S.A. enpresak kontua irekiko du bere izenean, eta, bertan, Foru Ogasunarekin egindako BEZ likidazioak egingo dira. Errentamendu eta zerbitzuengatik Partzuergoak Udal Sareak, S.A. enpresari fakturatu behar dizkion zenbatekoak kontu horretako saldoaren kontra likidatuko dira.



4.- Edonola ere, BEZ likidatzean Udal Sareak, S.A. enpresak dituen finantza-premiei aurre egin beharko die Partzuergoak.

4.1.3.

Hori horrela izanik ere, konturako zenbatekoak eman ahal izango zaizkie udalei, halaxe eskatzen dutenean.

4.1.4.

Modu berean, diruzaintza-arrazoiengatik, Partzuergoak aurrekontuko diru-sarrerak egin ahal izango ditu kontuan, lortutako diru-bilketaren aurka.

4.1.5.

Indarreko legerian eta Hornikuntza eta Saneamendu Zerbitzua arautzen duen Ordenantzan xedatutakoa kontuan hartuta, Partzuergoak, hornikuntzaren etendurari kalterik egin gabe, premiamenduzko prozedura erabiliko du, kuotak, gainordainak, zehapenak eta beste edozein azalpen kobratzeko, abonatuak udal-zerbitzu kudeatzaileari borondatezko epean ordaindu ez diotenean.

Horretarako, berankorren zerrenda egingo da, eta gerenteak sinatutako premiamendu-probidentzia erantsiko da amaieran.

4.2. Fidantzak eta gordailuak.

4.2.1.

Kontralistek edo beste hirugarren batzuek Partzuergoaren alde eratu behar dituzten fidantzak eta gordailuak aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.



4.3. Ondasunak besterentzea

Ondasun-besterentzeak prestatu eta esleitzeko orduan, Toki Araubidearen arloko indarreko arauak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Kontratuen Legea eta Barne arauak hartuko dira kontuan.

Edozein kasutan, jarraituko den esleipen prozedura irekia izango da, irizpide bakarrarekin: prezioa.

Baldintza Teknikoen Orriak prestatzeko orduan, salgai dagoen ondasunaren ondare-erreferentziak edo ezaugarriak, hala badagokio, argi eta garbi zehaztu behar dira, baita kontratistak kasu bakoitzean bete beharko dituen eskakizunak ere. Era berean, materiala jaso eta eramateari dagokionez, kontratistak edo Partzuergoak dituen obligazioak adierazi beharko dira. Zenbatekoa materiala jaso aurretik ordaindu beharko da, nahitaez.

Bestelako ondasun higiezinaren bitartez trukaturako besterentzeen kasuak salbuetsi egingo dira..



5. DIRUZAINNTZA

5.1. Fondoaren zaintza.

5.1.1.

Hona hemen Gerentearen eskumenak:

1. Kontu korranteak eta kreditu-kontuak irekitzea edozein bankutan, bai eta Espainiako Bankuan eta Estatuko edo atzerriko banketxeetan ere. Kontuotan dirua sartzea. Balore-gordailu guztiak edo zati bat ateratzea. Adierazitakoaren ondorioz interesak eta eskudirua jasotzea. Kontuak ixtea.
2. Kontu horietako txekueak, taloiak eta ordezkagiriak eta beharrezkoak diren gainerako agiriak sinatzea, gainerako giltzariekin batera, hala badagokio.
3. Adierazitako kontuen kontrako transferentziak agintzea.

5.1.2.

Batzar Nagusiaren berariazko erabakiaren arabera, Partzuergoko Fondoaren Gordailuzaintza Ekonomia eta Finantza Zerbitzuetako zuzendariaren esku dagoenez, diru-sarreraren agiriaren eta ordainketa-gutunaren "jaso izana" sinatuko du.

Era berean, fondo-erabileraren banku-agiriak, kontaketa-aktak eta antzeko beste agiri batzuk ere sinatuko ditu.

Nolanahi ere, egokia iruditzen zaionean, Zuzendariak Diruzaintza-buruari edo Kontuhartzaitza-buruari eskuordetu ahal izango die agiri horien sinadura, eta zehaztutako mugak hartuko dira kontuan.

5.1.3.

Kutxan eguneroko atentzioetarako fondoak egotean sortutako arriskua murrizteko asmoz, Diruzaintza-buruak zenbateko horiek zaindu ahal izango ditu. Hain zuzen ere, Partzuergoko kutxan egon beharko lirateke, banku edo aurrezki erakundean irekitako kontu korrantean. Gainera, eskudirua izango balitz bezala erabili ahal izango du bertako saldoa.

5.1.4.



Finantza eta kreditu erakundeetan gordailatutako fondoak erabiltzeko egindako txeekek mugak izango dituzte, inoiz ez direlako eramailearentzat izango eta beti-beti nominatiboak izan beharko direlako.

Fondoak erabiltzeko muga hori erabilerarako edozein sistema edo modutan hartu beharko da kontuan.

5.1.5.

Baliabide likidoen kudeaketan, kutxa bakarraren printzipioa hartuko da kontuan, eta ahalik eta errentagarritasun handiena lortzeko printzipioa hartuko da kontuan. Dena dela, likidezia berehalakoa dela bermatu beharko da, betebeharrak mugaegunetan bete ahal izateko.

5.1.6.

Aurrekontua betearaztean lortu daitezkeen baliabideak Partzuergoaren betebeharrak guztiak ordaintzeko erabiliko dira, betiere, helburu zehatzetarako diru-sarrera bereziak ez badira.

5.2. Diruzaintza eta aurrerakin arloko eragiketak.

5.2.1.

Partzuergoaren kudeaketa berezia izatean, arina eta eraginkorra izan behar denez, Diruzaintzako eragiketak kontratatu ahal izango dira, euren helburua kutxaren unean uneko defizitei aurre egitea bada.

Zenbatekoa kalkulatzeko orduan, Aurrekontuak interesen zerbitzua eta itzulketa estali ditzakeela egiaztatu beharko da.

5.2.2.

Inolaz ere, Diruzaintzako eragiketen zenbatekoa ez da Aurrekontuko ohiko diru-sarreraren laurdena baino handiagoa izango.

5.2.3.

Partzuergoko Kontu-hartzaileak aurretiazko txostena egin beharko du, diruzaintzako eragiketak garatu nahi izanez gero.



6. LANGILERIA

6.1. Langileen Araubidea.

6.1.1.

Partzuergoko langileek lan-arloko legeria bete beharko dute, eta, ordainsariei dagokienez, aurrekontuko diru-idazpenak eta langile bakoitzari ezarri beharreko hitzarmenak eta kontratuak hartu beharko dira kontuan. Gainera, Barne Araubideari buruzko Araudia, Hitzarmen Kolektiboa eta kontratazio kolektibotik kanpoko langileekin sinatutako kontratuak ere hartu beharko dira kontuan.

Era berean, arautegi hori urratu gabe, Partzuergoak hartutako erabakiak ere hartu beharko dira kontuan.

6.1.2.

Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoaren arabera, langileek hileko aurrerakinak jaso ahal izango dituzte euren ordainsarien kontura, eta dagokien soldatatik kenduko zaizkie.

6.2. Partzuergoko langile-taldea.

6.2.1.

Partzuergoko langileek Aurrekontuko Langileei buruzko Eranskinean zehaztutako lanpostuak betetzen dituzte.

6.2.2.

Partzuergoaren Aurrekontuan, lanpostu guztietako kredituak eta aipatutako eranskinean zehaztutako lanpostuak eurak onartzen dira. Horrez gain, urte-amaierara arte beharrezkoa den zenbatekoa ere agertzen da.

6.2.3.

Iraupen mugatuko lan-kontratazioak ez daude langile-taldearen barruan, eta Partzuergoaren Aurrekontuan horretarako zehaztutako zenbatekoen arabera izango dira egin beharreko kontratuak.



6.3. Lanpostuen sorrera, aldaketa eta amortizazioa.

Langile-taldearen lanpostuak sortu, aldatu eta/edo amortizatzeko, Batzar Nagusiak hartu beharko du erabakia, eta berariaz adierazi beharko du nolakoak diren aurreko aldaketek eragindako inplikazio ekonomikoak.

6.4. Lanpostuen Zerrenda.

Batzar Nagusiak lanpostuen zerrenda eta bere aldaketak onartuko ditu, eta, bertan, honako datu hauek agertu beharko dira: lanpostuen izena eta funtsezko ezaugarriak, kasuan kasuko ordainsariak eta lanpostuak betetzeko beharrezkoak diren eskakizunak.

Edonola ere, Zuzendaritza Batzordeak lanpostuen zerrendako aldaketak onartu ahal izango ditu, horren ondorioz plaza berririk sortzen ez bada eta aurrekontuko diru-idazpenak handitzen ez badira. Ondoren, aldaketa horien berri eman beharko dio Batzar Nagusiari.

6.5. Partzuergoko langile-taldea aldatzeko prozedura.

6.5.1. Langile berrien altak.

1. Lan-kontratazio finkorako espedienteak sinatzeko orduan, Kontu-hartzaitzaren txostena eduki beharko da, eta, bertan, plaza hori egon badagoela eta urte-amaierara arteko aurrekontu-zuzkidura nahikoa dela adierazi beharko da, kasuan kasuko sailkapen ekonomikoa eta programen arabera kontuan hartuta.
2. Gerenteak proposatuta, Zuzendaritza Batzordeak aldi baterako kontratuak onartu ahal izango ditu, Langileen Estatutuan eta indarreko gainerako xedapen osagarrietan xedatutakoa kontuan hartuta.

Onartua izateko asmoz, Zuzendaritza Batzordeari aldi baterako kontratazioen proposamena aurkezten zaionean, Antolakuntza Zuzendaritzaren txostena erantsi beharko da. Bertan, hain zuzen ere, kontratuaren edo ekitaldiaren amaierara arteko gastua zenbatekoa izango den adierazi beharko da.



6.5.2. Langileen bajak.

1. Langileei baja emango zaie, lan-kontratu finkodun langileek Partzuergoko langile-taldean zeukaten plaza eten denean edo aldi baterako kontratatutakoen zerbitzugintza eten denean.
2. Batzar Nagusiak plaza amortizatzeko erabakia hartzen ez badu, lanpostu iraunkorra edo bitarteko lanpostua betetzen duten langileen baja guztien ondorioz hutsik dagoen lanpostua sortu edo liberatu egingo du, hurrenez hurren, betiere, plaza-erreserbarik ez badago.

6.5.3. Langile-aldaketak.

1. Antolakuntza Zuzendaritzak lanpostuak zuzkitzean sortutako kreditu-aldaketak bideratuko ditu, eta Kontu-hartzailetzari bidaliko dio espedienteak, fiskalizatu eta kontabilizatu dezan.
2. Langile-taldearen plazetan kreditu-zuzkidura handiagoak onartzen badira, Antolakuntza Zuzendaritzak kasuan kasuko kreditu-aldaketak bideratu beharko ditu.
3. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa xedatuta ere, I. kapituluko kreditu guztiak handitzen dituzten kreditu-aldaketak egin behar direnean, Gerentziak partzuergoko presidenteari eskatuko dio behar besteko aurrekontu-zuzkidura egiteko.

6.6. Soldaten ordainketa.

6.6.1.

Lan-arloko legeria kontuan hartuta eta hileko ordainsarien zerrendari kalterik egin gabe, langileei hartzekoak ordainduko zaizkie soldata-ordainagiriaren bitartez. Agiri hori ordainketaren egiaztatzea izango da, adierazitako zerrendan eranstean.

6.6.2.

Soldatan egiaztatutako zenbatekoak kontu korrontean edo aurrezki-libretan ordainduko dira, interesdunek eurek adierazitako banku-erakundean edo aurrezki-kutxan.



7. KONTRATAZIOA

7.1. Kontratazio administratiboa.

7.1.1.

Lanak, hornidurak eta zerbitzuak eta ondasunak besterentzea kontratatzeke orduan, Toki Araubidearen arloko indarreko arauak eta Sektore Publikoko kontratuei buruzko Legea hartuko dira kontuan.

7.1.2.

Partzuergoaren Estatutuetoako 18. artikuluaaren arabera, Batzar Nagusiak berak izendatuko du Kontratazio Mahaia.

7.1.3.

Oinarri hauetako 3.1. paragrafoan zehaztutakoak organo eskudunak izango dira, eta lanen, ondasunen, zerbitzuen eta horniduren esleipen eta kontratazioarekin zerikusia duen guztia onartzeko eta ebazteko muga edukiko dute, betearazpena edo eskurapena Aurrekontu honetan banatuta badago edo ekitaldi ekonomiko bakar bateko aurrekontu-kredituak erabili behar badira.

7.1.4.

Zuzendaritza Batzordeak eta, hala badagokio, Presidenteak eskumen bera izango dute kontratazioarekin zerikusia duen guztian, ekitaldi ekonomiko biko edo gehiagoko kredituak erabili behar direnean (urte anitzeko gastuak), betiere, lizitazioa Batzar Nagusiak aurretiaz onartutako Plangintzako lanei, ondasunei, zerbitzuei edo hornidurei buruzkoa bada, nahiz eta plangintza horretan lizitaziokoak ez beste lan, ondasun, zerbitzu edo hornidura batzuk agertu.

7.1.5.

Zuzendaritza Batzordeak azken ziurtagiria onartu duenean, Presidenteak berak onetsi beharko du kontratuen likidazioa, betiere, kontratua azken ziurtagiri horren arabera likidatzen bada.



7.1.6.

Une oro, Kontratazio Organoarentzat lehentasunezkoa izan beharko da biztanleei eta industriari ur-hornikuntza bermatzea. Hori dela eta, behar beste aldiz erabili ahal izango da larrialdi-adierazpena.

7.1.7.

Partzuergoak deitutako lizitazioei behar den moduko publizitatea emateko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xede horretarako zehaztutako arauak hartu beharko dira kontuan.

7.1.8.

Honako hau adierazten da Kontratazio Mahaiaren funtzionamenduari buruz:

1. Pliken irekiera hiru fasetan egingo da: Lehenengoan, agiri administratiboak eta teknikoak ireki eta aztertuko dira, baldintza-orriko eskakizunetara egokitzen diren egiaztatzeko. Hala badagokio, hiru eguneko epea emango da, akatsak zuzentzeko.

Antzemandako akatsak ezin badira zuzendu, proposamena gaitzetsi egingo da, eta gainerako eskaintzak dagokion Zerbitzura bidaliko dira, balorazio-txosten teknikoa igor dezan, baldintza-orrietan ezarritako irizpideekin bat etorritz.

2. Bigarren fasean, Kontratazio Mahaiak aipatutako balorazio-txosten teknikoa aztertuko du.
3. Hirugarren fasean, lizitatzailleek lortutako puntuazio teknikoak irakurriko dira egintza publikoan, bai eta baztertzeak ere, baleude; jarraian, egintza berean, proposamen ekonomikoak irekiko dira.
4. Lortutako emaitza ikusita, baldintza-orrietan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuz, Mahaiak beheranzko balorazio-ordenan sailkatuko ditu eskaintzak, eta, era berean, lehenengo sailkatua proposatuko dio kontratazio organoari.
5. 7.1.3. paragrafoaren arabera, Zuzendaritza Batzordeak, Presidenteak edo Gerenteak, kasuaren arabera, eman beharko du behin betiko akordioa.



6. Kontratazio Mahaia agiri administratiboak, teknikoak edo ekonomikoak irekitzeko egindako egintza guztiak publikoak izango dira.
7. Publizitaterik gabeko prozesura negoziatuak direnean, Mahaia deituko da, egintza publiko bakar batean irekitzeko agiri administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak.



8. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

8.1. Ixteko eguna.

Aurrekontua abenduaren 31n itxiko da, ordura arte likidatutako eskubideei eta sorrarazitako betebeharrei dagokienez.

8.2. Likidazio-espedientearen edukia.

Honako agiri hauek agertu beharko dira ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan:

1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera.
2. Itxitako Aurrekontuen egiaztatze egoera.
3. Aurrekontuan ez dauden diruzaintza-eragiketen egoera eta mugimenduak.
4. Ekitaldiko diruzaintzaren egoera.
5. Diruzaintzako soberakinaren egoera.
6. Erasandako finantziaziodun gastuen egoera.

Horrez gain, aurrekontua likidatzeko espedientean erantsiko dira kobratu gabeko eskubideen gainean egiten den azterketako emaitzak. Hain zuzen ere, zaila edo ezinezkoa izango da likidatzen denaren hurrengo ekitaldian kobratzea.

Honako hauxe hartu beharko da kontuan, eskubideak kobratzea zaila edo ezinezkoa izango dela zehazteko: zorren antzintasuna, zorren zenbatekoa, ordainbidea, borondatezko eta derrigorrezko epealdiko diru-bilketaren ehunekoak eta zuhurtziaz balioesteko gainerako irizpideak.

Hala ere, zaila edo ezinezkoa izango da kontuetan kontratatu zirenetik hogeita lau (24) hiletik gorako antzintasuna eduki eta behar bezala aitortuta dauden eskubideak kobratzea, behar bezala bermatuta ez badaude eta hurrengo ekitaldian kobratzen ez badira. Halakoetan, ez dira eskubide horiek kendu beharko.



8.3. Onarpena eta osteko izapideak.

8.3.1.

Aurrekontuaren likidazioari buruzko agiriak likidatutako ekitaldiaren hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen prestatu beharko dira.

8.3.2.

Kontu-hartzailetzaren txostena jaso ondoren, Presidenteak aurrekontuaren likidazioa onartu beharko du, eta Zuzendaritza Batzordeari zein Batzar Nagusiari jakinarazi beharko die.

8.3.3.

Aurrekontua likidatzean Diruzaintzako Soberakina negatiboa bada, Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Aurrekontuko gastuak murriztu beharko ditu egiten den lehen bileran, eta murriztu beharreko zenbatekoa gertatutako defizitaren baliokidea izan beharko da.

Gastuak murrizterik ez badago, zenbateko bereko kreditu-eragiketa hitzartu ahal izango da.

Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako neurriak ezartzen ez badira, aipatutako defizita baino txikiagoa ez den zenbatekodun hasierako superabitarekin onartu beharko da Aurrekontua.

8.3.4.

Erakundeak aurrekontuen Likidazioaren kopia (merkataritzako Organismo Autonomiadunak kontuan hartuta) bidali beharko dio Foru-aldundiari, onarpenaren osteko hilabetea amaitu aurretik. Gero, aldundiak berak bidaliko die administrazio eskudunei.



9. AURREKONTUAREN LUZAPENA

9.1. Luzapenaren Araubidea.

Ekitaldiaren hasieran ekitaldiko Aurrekontua indarrean sartu ez bada, aurreko ekitaldikoa luzatuko da zuzenean.

Luzapen-epealdian, aurrekontu-arautegiaren eta Aurrekontua Betearazteko Arau honen arabera arautuko dira aurrekontu-aldaketak.



10. KONTU OROKORRA

10.1. Egoeren eta urteko kontuen zerrenda

Ekitaldi ekonomikoaren amaieran, Partzuergoak kontuak eta egoerak eratuko ditu, eta euren zehaztapena, xehetasunak eta osaketa 10/2003 Foru Arauko 62. artikuluan xedatutakoaren arabera izango dira.

10.2. Onarpena eta osteko izapideak

Presidenteak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko ditu egoerak eta kontuak.

Kontuen Batzorde Bereziak maiatzaren 15a baino lehen egin beharko du presidenteak eraturako Kontu Orokorrari buruzko txostena.

Kontu Orokorrak hori eta, aurreko lehenaldetik adierazi bezala, Batzorde Bereziak egin beharreko txostena 15 eguneko epean idatzi behar du. Epe horretan, zitekeen interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Kontuen Batzorde Bereziak erreklamazio horiek aztertu eta behar besteko egiaztapenak egingo ditu, txosten berria egin baino lehen.

Batzar Nagusiari Kontu Orokorra bidaliko zaio, Batzorde Bereziaren txostenekin eta egindako erreklamazio eta eragozpenekin batera, eta, hala badagokio, uztailaren 31 baino lehen onartu beharko du.

Partzuergoak Herri Kontuen Euskal Epaitegiari bidaliko dio behar den moduan onartutako Kontu Orokorra.



11. KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

11.1. Kontu-hartzailetza

Ekonomia eta Finantza Zerbitzuetako Zuzendaria kontu-hartzailea izango da, eta Aurrekontua Betearazteko Arau honetan zehaztutako baldintzen arabera bete beharko du eginkizun hori. Kontu-hartzailea ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo beste arrazoi batzuk gertatzen direnean, Kontu-hartzailetza burua izango da bere ordezkia. Hala ere, Kontu-hartzaile Delegatua baino ez da izango.

11.2. Kontu-hartzailearen kontrola.

11.2.1.

Kontu-hartzailearen kontrola Partzuergoko jardura ekonomikoaren gainean indarreko arautegian zehaztutako baldintzen arabera ezarritako barne-kontrola da.

11.2.2.

Lortu beharreko helburuen arabera, honelakoxea izango da kontrola:

1. Legezketasunaren kontrola. Indarreko arautegia jarduketa ekonomikoetara egokitzen den egiaztatuko da.
2. Eraginkortasunaren eta egokitasunaren kontrol ekonomikoa. Jarduketan egokitzapen ekonomikoa aztertuko da, antolatutako ekintza zein helburuen ikuspegitik eta prozesuaren kostuaren ikuspegitik.
3. Kontrol finantzarioa. Finantza eta aurrekontu arloko informazioaren eta informazio hori antzeman, ebaluatu, sailkatu eta jakinarazteko erabilitako moduen fidagarritasuna eta osotasuna aztertuko dira.
4. Antolakuntzaren kontrola. Eragiketa ekonomikoekin zerikusia duten antolakuntza eta administrazio arloko sistemak eta, batez ere, aktiboak babesteko bitartekoak egokiak diren balioetsiko da.
5. Kontrola noiz egiten den kontuan hartuta, "a priori" egin daiteke, kontrolatutako egintza baino lehen, edo "a posteriori" egin daiteke, egintzaren ondoren.



11.3. Legezkotasunaren kontrola

11.3.1.

Legezkotasuna kontrolatzean, Kontu-hartzaitzak eskubide eta betebeharrak edo gastu ekonomikoak aitortu eta likidatzen dituzten Partzuergoaren egintza guztiak fiskalizatuko ditu, bai eta euren ondorioz sortutako diru-sarrerak eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen diru-bilketa, inbertsioa eta aplikazioa ere, kudeaketa kasuan-kasuan ezarri beharreko xedapenetara egokitu dadin.

11.3.2.

Honako hauxe egingo da adierazitako eginkizuna betetzeko:

1. Kontu-hartzaitza kritikoa edo egintza, agiri edo espediente ororen aurretikoa. Izan ere, eskubide edo betebeharrak ekonomikoak edo balore-fondoen mugimenduak sortu ahal izango ditu.
2. Ordainketa-aginduen kontu-hartzaitza formala.
3. Ordainketaren kontu-hartzaitza materiala.

Ondorio horietarako, Presidenteak edo Gerenteak edo gordailuzainak ez ezik, kontu-hartzaileak ere sinatu beharko du fondoen erabileran.

4. Inbertsioen eta diru-laguntzen ezarpenaren kontu-hartzaitza eta egiaztapen materiala.

11.4. Eraginkortasun eta egokitasunaren kontrol ekonomikoa.

11.4.1.

Eraginkortasun eta egokitasunaren kontrol ekonomikoa legezkotasunaren kontrolerako egintzetan garatuko da, eta, bertan, honako hauxe egingo da, antolatutako ekintzen eta zehaztutako helburuen egokitzapen ekonomikoaren ikuspegitik:

1. Kontu-hartzaitza kritikoa edo egintza, agiri edo espediente ororen aurretikoa. Izan ere, eskubide edo betebeharrak ekonomikoak edo balore-fondoen mugimendua sortu ahal izango ditu.



2. Egintzen euren eta, batez ere, aurrekontu-programazioko ekintzen zein helburuen kuantifikazioaren “a posteriori” kontrola.

11.5. Kontrol finantzarioa.

11.5.1.

Kontrol finantzarioa ikuskaritza finantzarioaren bidez egingo da, Sektore Publikoko Ikuskaritzari buruzko Arauen arabera.

11.6. Eragozpenak.

11.6.1.

Kontu-hartzailetzan zehar, kontu-hartzailea aztertutako egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo formarekin bat ez badator, bere eragozpenak idatziz adierazi beharko ditu, erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

11.6.2.

Partzuergoaren aldeko eskubideen aitortpenarekin edo likidazioarekin bat ez badator, eragozpenen oharra egin beharko du, baina espedientearen izapideak ez dira inondik inora etengo.

11.6.3.

Gastuen erabileraren, betebeharren aitortpenaren edo ordainketa-aginduen inguruko eragozpenik badu, espedientearen izapideak honako kasu hauetan etengo dira, harik eta eragozpena konpondu arte:

1. Kreditu nahikorik ez dagoenean edo proposatutakoa egokia ez denean.
2. Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean.
3. Espedientearen eskakizun formalak edo funtsezko izapideak agertzen ez direnean.
4. Eragozpena lanen, horniduren, eskurapenen edo zerbitzuen egiaztapen materialen ondorioa denean.



11.6.4.

Eragozpenpean dagoen organoa eragozpenarekin ados ez dagoenean, Zuzendaritza Batzordeak desadostasuna ebatzi beharko du. Bere ebazpena, gainera, betearazlea izango da eta ezin izango dio inori eskuordetu.

11.6.5.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, Batzar Nagusiak desadostasuna ebatzi beharko du:

1. Eragozpenak kreditu nahikorik ez egotean edo kreditua desegokia izatean sortzen direnean.
2. Eragozpenak bere onarpenpean dauden betebeharrei edo gastuei buruzkoak direnean.

11.7. Fiskalizazio mugatua.

11.7.1.

Inbentarioan agertzen ez den materialaren gastuetan eta hornidura txikietan, ez da aurretiazko kontu-hartzailetzarik egin beharko, ez eta aldian-aldikoetan eta segidako traktuko gainerakoetan ere, egintzaren edo kontratuaren hasierako epealdiko gastuan edo bere aldaketetan kontu-hartzailetza egin ondoren.

11.8. “Osteko” kontrolak.

11.8.1.

Aurreikusitako edozein kontrol-ikuspegitik “a posteriori” egindako kontrolaren ondorioz, txosten idatzia egin beharko da, egindako azterketaren ondorioz sortutako oharra eta ondorioak azaltzeko.

11.8.2.

Zuzendaritza Batzordeak txostenak eta kontrolatu beharreko eginkizunen arduradunen alegazioak aztertu beharko ditu.



11.9. Kontu-hartzailetzaren eskumenak.

11.9.1.

Hona hemen kontu-hartzailetzaren kontrola garatzeko eskumenak: behar besteko aurrekari guztiak biltzeko aukera; beharrezkoak diren liburuak, kontuak eta agiriak aztertzea eta egiaztatzea; kontaketak eta zenbaketak egiaztatzea; eta, kontu-hartzailetzapean dagoen egintzaren, agiriaren edo espedientearen ezaugarriak kontuan hartuta, behar besteko txosten teknikoak eta aholkularitza eskatzea.

11.9.2.

Era berean, kontu-hartzaileak, kontu-hartzaile delegatuak, egon balego, eta kontu-hartzaileak ardurapean dituen langileek fiskalizatu behar duten jarduketa garatzen duten organoetatik erabat aparte garatuko dute euren eginkizuna.

11.9.3.

Kontu-hartzailetza egitean, barne-araubideko zirkularrak egin ahal izango dira, kontu-hartzailetzako alderdi zehatzak arautzeko.



12. ZORPEKETA ETA BERMEEN PRESTAZIOA

12.1. Zorpeketaren muga. Finantza-karga.

12.1.1.

Diruzaintzaren behin-behineko beharrei erantzuteko, epe laburrerako eragiketak gauzatu ahal izango dira, urtebete baino luzeagoak ez badira, betiere, aurreko ekitaldian eragiketa arruntek likidatutako diru-sarreraren %30 baino handiagoak ez badira, guztira. Aitzitik, eragiketa hori ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioa gauzatu aurretik egin behar bada, aurreko ekitaldiko likidazioa aintzat hartuko da.

Adierazitako muga Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 54. artikuluan ezarritakoarekin bat dator.

12.1.2.

Dena dela, formalizatu beharreko kreditu-eragiketak bideratzean, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 51. eta 56. artikuluko bitarteetan horretarako xedatutakoa edo ezarri beharreko beste edozein xedapenetan adierazitakoa hartu beharko da kontuan, eragiketon mugak, izapideak, baimenak eta kontu-emakidak zehazteko orduan.

12.2. Diruzaintzako eragiketak.

Era berean, Partzuergoak likidezia eta segurtasun arloko baldintzak betetzen dituzten inbertsioak egin ahal izango ditu, diruzaintzako aldi baterako soberakinei errentagarritasuna ateratzeko.

12.3. Abalen emakida.

12.3.1.

Kreditu-eragiketarako beharrezkoak diren muga, izapide eta baimen berberak kontuan hartuta, Partzuergoak abalak eman ahal izango ditu, abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 52. artikuluko 4. paragrafoan agertutako erakundeek egin beharreko kreditu-eragiketak bermatzeko.



13. ESKUORDETZAK

13.1. Presidentearen aldekoak.

13.1.1.

Euren eskumenen esparruan, Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak Partzuergoko Presidenteari eskuordetuko diote honako egintza hauek garatzeko behar besteko gaitasuna:

1. Era guztietako kontratu administratiboak edo beste izaera juridiko bateko kontratuak sinatzea, betiere, Partzuergoak deitutako lizitazioen esleipenaren ondorioz sortu badira.
2. Beste instituzio, erakunde edo enpresa publiko edo pribatu batzuekin lankidetzahitzarmenak sinatzea, betiere, Partzuergoak horretarako hartutako konpromisoen ondorioz ekitaldi ekonomiko bat gainditzen duten eta horretarako behar besteko aurrekontuzuzkidura daukaten betebeharrak ekonomikoak aitortu behar ez badira.
3. Mailegu-kontratuak eta diruzaintzako eragiketak harpidetzea, betiere, Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak aldeztu aurretik hitzartu baditu.
4. Beharrezko egintza guztietan esku hartzea, betiere, Partzuergoaren Estatutuen, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen arabera horretarako baimenik badu.
5. Oro har, Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak bere eskumenen esparruan hartutako erabakiak betearazteko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzea.

13.1.2.

Agerikoa denez, eginkizun-eskuordetza horiek ez dituzte Presidenteak Partzuergoaren Estatutuen eta legezko arautegiaren arabera dituen eginkizunak inolaz ere murriztuko edo aldatuko.



13.2. Gerentearen aldekoak.

13.2.1.

Bere eskumeneko eginkizunak Gerenteari eskuordetzeko asmoz, presidenteak emandako ahalordea berresten da. Ahalordetza hori, hain zuzen ere, 2004ko abuztuaren 10eko eskrituraren bidez egin zen, Bilboko Jose Maria Rueda Armengot notarioaren aurrean.

Modu berean, 13.1.1. arauko 1., 4. eta 5. paragrafoetan adierazitako ahalmenak ere eskuordetuko zaizkio Gerenteari.

13.2.2.

2004ko irailaren 28ko bileran Zuzendaritza Batzordeak Partzuergoko Gerenteari emandako Ahalordea berresten da. Horrela, 5.1.1. paragrafoan zehaztutako ahalmenak ez ezik, Partzuergoaren ordezkaritza ere hartuko du bere gain, bertan hitzartutako baldintzetan.

13.3. Produktu eta azpiproduktuen besterentzea.

13.3.1.

Zuzendaritza Batzordeari eskuordetuko zaio BBUPk hornikuntzan eta saneamenduan garatutako ohiko jardueraren ondorioz sortutako produktuak eta azpiproduktuak besterentzeko ahalmena: energia elektrikoa, lohiak, errautsak... Zenbatekoa, gainera, 300.000 eurotik gorakoa izango da.

13.3.2.

Eskuordetza 3.1.1. oinarriak arautzen duen "Eskumenen araubidean" aurreikusitako guztian ere izango da eraginkorra.



13.4. Beste eskuordetza batzuk

13.4.1.

Partzuergoak Patricia Ruiz Soroa andreari eta Auzitegietako Prokuradore eta Letratuei emandako ahalordeek bere horretan iraungo dute.

13.4.2.

Gerenteari eskuordetuko zaio abonatuaren erreklamazioak ebazteko Erabakiak hartzeko ahalmena.

13.4.3.

Era berean, Partzuergoko Gobernu-organismoek euren eskumenen esparruan ebazitako beste edozien eskuordetak ere jarraituko du indarrean, betiere, berariaz ezeztatu ez bada.



14. INTERPRETAZIOA

14.1. Aurrekontua Betearazteko Arau honen interpretazioa.

14.1.1.

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeari berariaz eskuordetzen dio arau hau ezartzean eta interpretatzean sortu daitekeen edozein zalantza argitzeko ahalmena.

EGINBIDEA.- Bilbon, 2016ko -----aren -----(e)(a)n egiten dut, Aurrekontua Betearazteko Arau hau indarreko aurrekontu-arautegiko eskakizunetara modu teknikoan egokitzen dela egiaztatzeko eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Batzar Nagusiak 2016ko -----aren -----(e)(a)n egindako bileran onartu zuela adierazteko.

GERENTEA
Pedro M. Barreiro Zubiri
Iz.: Pedro María Barreiro Zubiri.





14.- 2017ko Aurrekontuaren egonkortasuna ebaluatzeko txostena.



**2017ko EKITALDIKO AURREKONTURAKO AURREKONTU-
EGONKORTASUNAREN EBALUAZIO-TXOSTENA**

Txosten hau apirilaren 27an onartutako Aurrekontu Egonkortasunerako eta Iraunkortasun Finantzariorako 2/2012 Lege Organikoa betez egin da.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa lege horretako 2.2 artikuluaaren aplikazio-esparruan sartuta dago, hau da, Herri Administrazio baten menpeko Sektore Publiko gisa (Administrazio Nagusia, Autonomia Erkidegoak, Tokiko Korporazioak, Gizarte Segurantzako Administrazioak).

Aurrekontu Egonkortasunerako eta Iraunkortasun Finantzariorako 2/2012 Legeko 3.3 artikulua dio, 2/2012 Legeko 2.2 artikulua aipatutako gaietarako, oreka finantzarioa hartuko dela aurrekontu-egonkortasuntzat.

Gaur egun indarrean dagoen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bitartez tokiko erakundeei aplikagarria zaien Aurrekontu Egonkortasuneko abenduaren 12ko 18/2001 Legearen araudia onartzen baita, 4.2 artikuluan dio enpresa arloko gainerako erakunde publikoek, merkataritza sozietateek eta tokiko erakundeen menpe dauden eta zuzenbide publikokoak diren gainerako erakundeek (batez ere, diru-sarrera komertzialen bidez finantzatutako ondasunak ekoizten dituztenak edo zerbitzuak ematen dituztenak) oreka finantzarioko egoeran onartuko dituztela euren aurrekontuak, aplikagarriak zaizkien kontabilitate-planaren printzipioekin bat etorritik.

Ildo horretan, 1463/2007 Errege Lege Dekretuko 24. artikulua dio aipatutako legeko 4.2 artikuluan jasotako erakundeak desoreka finantzarioko egoeran daudela, baldin eta, aplikagarriak zaizkien kontabilitate-planen irizpideekin bat etorritik, galerak badituzte, eta gainetik duen erakundearen egonkortasun-eszenatokian aurreikusi gabeko baliabideak erabili behar badira galera horiek saneatzeko.

Beste alde batetik, 2011ko urriaren 1etik aurrera, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Orokorrak (IGAE) sektorizatuta dauka Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, merkatura zuzendutako Sozietate ez Finantzario gisa, Kontuen Europako Sistemak (KES) ezarritako irizpideen arabera. Beraz, Partzuergoaren zorra, halakorik balego, ez da zenbatzen Espainiako Erresumaren zor gisa, ez gainetik duen erakundearen zor gisa.



Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Orokorrak (IGAE) Bizkaiko Foru Aldundiari atxiki dio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, haren menpeko tokiko erakunde gisa, Egonkortasun Legea betez.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak 2017ko ekitaldirako duen aurrekontua, Batzar Nagusiari helarazten zaiona hark onartu dezan, oreka finantzarioa duen erakunde horretarako 2/2012 Lege Organikoak jasotako aurrekontu egonkortasunerako irizpideen arabera aurkezten da, ez baitu aurreikusita galerak izatea, tokiko erakundeei aplikagarria zaien eta azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuak onartu zuen Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen Araudiko 24. artikulua zehazten duen moduan.

Bilbon, 2016ko irailaren 26an



José Manuel Pereda Renobales
Kontu-hartzailea